

**Ebazpena: R 6/2023**

**Espedientea: 4/2015**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 27an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek. Eta honakoa erabaki dute:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEAk) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita TIISA zergapekoaren kudeaketa-jarduketen legezkotasuna zehaztea, 2010-2014 urteetako BEZari dagokionez. Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 4/2015 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- Zerga-egoitza Madrilen duen sozietatea da TIISA, eta 2010etik 2014ra 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu zuen, Estatuari % 100eko zerga ordainduz.

Aipatutako urteetako BEZari dagokionez, ikuskatzeko eskumena ZAEari zegokion.

2.- 2014ko irailaren 24an, TIISAK ZAEARI jakinarazi zion 2014ko maiatzaren 26an AFAREN errekerimendu bat jaso zuela 2013ko 7. eta 9. aldietako hileko BEZAREN autolikidazioak aurkezteko, eta, horrez gain, urte bereko abuztuaren 5ean beste errekerimendu bat jaso zuela 2010-2013 aldiko urteko autolikidazioak eta 2014ko hileko autolikidazioak aurkezteko.

3.- 2014ko azaroaren 25ean, ZAEAK inhibizioa eskatu zion AFARI aipatutako errekerimenduak formulatzeko eskumenari dagokionez, errekerimendu horiek, *de facto*, zergapekoaren eragiketa-bolumenaren proportzioa aldatzea dakartelako zerga-kudeaketako prozedura baten bidez.

4.- AFAK bere eskumeneko isilbidezko berrespenaren aurrean, 2015eko urtarrilaren 27an, ZAEAK gatazka Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen, eta 4/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da.

5.- AFARI hasierako alegazioen izapidea eman ondoren, 2022ko uztailaren 7an amore eman, eta ZAEAREN asmoa onartu zuen.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena du kudeaketa-eskumenik gabe administrazioak egin ditzakeen kudeaketa-jarduketan irismenari buruz planteatutako eztabaida ebazteko, zergak eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaintzen dituen zergapeko bati dagokionez, Ekonomia Itunaren 66.Bat.b) artikulua araberan; honako hauek dira haren eskumenak:

*Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.*

## 2.- Prozedura amaitzea

AFAk amore emateak prozeduraren xedea galtzea dakar, Arbitraje Batzordeak ebatzi behar zuen eztabaida desagertu delako.

Gainera, prozeduran ez dago prozedurak ukitutako interes legitimoak dituen inor, eta horrez gain, Arbitraje Batzorde honek behin eta berriz adierazi duenez, ezin da eragiketa-bolumenaren proportzioa kudeaketa-prozedura baten bidez aldatu. Horrenbestez, interes orokorrerako ez da beharrezkoa funtsari buruzko ebazpenik ematea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

## **ERABAKI DU**

1.- Baliogabetzat jotzea AFAk zergapekoari egindako errekerimenduak, hau da, 2010-2014 aldietako BEZaren autolikidazioak aurkezteari buruzkoak.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta TIISari.